

Leioan, 2011ko urtarrilaren 21ean

Guraso agurgarriok:

Aurten ere badator TXILINBUELTAKA. Dakizuenez, programa honek zuen umeen aisialdian euskara txertatzea du helburu.

Aurreko urteetako esperientziaz gogoeta egin dugu eta hobetu beharrekoetan kontu batzuk ikusi ditugu. Alde batetik irtenaldiak 4 hilabetetan metatzen dira, otsaila eta maiatza bitartean, hain zuzen eta urtearen bigarren partea programatik kanpo geratu da. Beste alde batetik, eta eskariari erantzuteko asmoz, irtenaldietako plaza kopurua igo dugu ahal izan dugun neurrian eta honek euskararen erabilera den helburu nagusia betetzeko arazoak ekarri ditu.

Hau dela-eta, aurten bi aldaketa egitea beharrezkoa iruditu zaigu:

Lehenego eta behin, laugarren irtenaldia ezarriko dugu udazkenean, TXILINBUELTAKA urte osoko ekintza izan dadin.

Bigarrenez, irtenaldi bakoitzaren parte-hartzaile kopurua 50era murriztea erabaki dugu euskararen erabilera errazteko. Hala ere, plaza kopurua orotara ez da murriztuko, iazko 194 plazan aldean aurten 200 eskaintzen baititugu.

Adeitasunez

En Leioa, a 21 de enero de 2011

Estimados padres:

Un año mas vuelve TXILINBUELTAKA. Como bien sabéis, el objetivo de este programa es dar presencia al euskera en el ocio de vuestros hijos.

Este año, y tras una reflexionar sobre la experiencia de los años anteriores, hemos visto algunos aspectos a mejorar. Por un lado, las salidas se han venido concentrando en 4 meses, de febrero a mayo dejando la mayor parte del año sin actividad. Por otra parte, y con la intención de responder a la demanda, hemos aumentado el número de plazas de cada salida en la medida que nos ha sido posible, y esto ha supuesto una clara dificultad para cumplir el objetivo fundamental de la actividad que es el uso del euskera.

En consecuencia, nos ha parecido necesario introducir dos cambios en la edición de este año:

En primer lugar, implantaremos una cuarta salida que tendrá lugar en otoño, para que TXILINBUELTAKA sea una actividad de todo el año.

En segundo lugar, el número de participantes por salida quedará reducido a 50, para facilitar así el uso del euskera. Aún así el número total de plazas, no se reduce y pasa a 200 frente a las 194 del año pasado.

Sin otro particular

Jose Luis Liz
Leioako Udaleko euskara teknikaria